

ZEBARRI

Lezamako Udal Aldizkaria

#45^{.ak}
Iraila-Urria 2019

Berbalagun #2

Udal Ikastaroak #3

Berdintasuna #4-5

Apelativo Lorri-Lorritzto #6
en Lezama



Lezamako Udala

Formularik onena? Berbalagun= 1+1

ZER DA BERBALAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko programa.

ZERTARAKO?

Euskara hobetzeko, praktikatzeko, euskaraz bizitzeko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko, euskaraz berba egiteko beldurra galtzen laguntzeko, euskaldunengana hurbiltzeko...

ZELAN?

Astean behin, ordubetez, paseoan, kafetegian, parkean, ikastaroetan; asteburuetan irteerak, afariak eginez...

ETA GURASOLAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak, zailtasunak dituztenekin elkartzeko programa da. Astean ordubetez, 5 edo 6 laguneko taldeetan elkartzen gara.

KONTAKTUA: 635 753 595 | txorierrri.berbalaguna@gmail.com

GURASOLAGUN



"Gurasoen artean euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa"

Euskaraz berba egiteko ohitura duten gurasoak eta mintzapraktika egin nahi duten gurasoak biltzen dituen programa da, hau da, gurasoak eta umeak batera euskaraz bizitzeko programa.

NON? Eskolako gela batean edota patioan.

NOIZ? Klaseak amaitu eta gero, zuek proposatutako ordutegian.

Izena emateko:

635.75.35.95 edota txorierrri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea: Lezamako Udala

BERBALAGUN
Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Ikasi
Lagundu
Ondo pasa
MINTZATU!!!
Erabili
Berbaz berba bidea EGITEN

Eman izena! 635.75.35.95 edo txorierrri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea: Lezamako Udala

Mankomunitateak antolatutako jarduerak Euskera Zerbitzuak antolatuta

TXORIERRIKO 22. IPUIN LEHIAKETA

Lanak Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira eta azken eguna 2018ko azaroaren 23a izango da.

ESKUHARTZE KOMUNITARIOA

Enplegu, formakuntza eta ekintzailtza azoka
Urriak 24 · 10:00 -14:00 Derioko Kultur birikan

Txorierriko 22. Ipuin lehiaketa

OINARRIAK

- Lanak euskaraz izango dira.**
- Dagokien kategoriaren arabera, nahi dutenek parte har dezakete.**
 - A kategoria: 7 urtera arte
 - B kategoria: 8 eta 9 urtekoak
 - C kategoria: 10 eta 11 urtekoak
 - D kategoria: 12 urtetik 15 urtera artekoak
 - E kategoria: 16 urtetik gorakoak
- Gaia librea izanik, lanek argitaratugabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute.** Lanen ebaluaketan, besteak beste, imajinarioa, kreatibitatea eta presentazioa hartuko dira kontuan.
- Lanak ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango** eta parte-hartzaile bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu.
- Lanak gutunazal handi batean aurkeztu behar dira eta kanpoko aldean kategoria eta bakoitzari dagokien udalerria baino ez dira idatziko.** Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutunazal txikiaren barruan izen-deiturak, helbidea, adina eta telefonoa jarriko dira.
- Lanak Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira eta azken eguna 2019ko azaroaren 22a izango da.**
- Epaimahaia lan irabazleak aukeratu ditu eta bere erabakia apelaezina izango da.**
- Kategoria bakoitzean sari bat banatuko da.** Horretaz gain, kategoriako eta herriko bi akzesit emango dira. Akzesitak, Loui, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko sari gabeko bi ipuin onenei emango zaizkie.
- Sari banaketarako eguna eta lekua aldez aurretik jakinaraziko da.**
- Saritutako lan guztiak Txorierriko Mankomunitatearen eskuetan geratuko dira,** eta honek erreproduzioa eta hedapen eskubideak izango ditu. Gai nontzeko lanak Txorierriko Mankomunitatean 2020ko urtarirlean zehar batu daitezke.
- Mankomunitateak irabazlearen izen-abizenak bere web orrian argitaratuko ditu,** eta adin txikiok parte-hartzailean irudiak jaso eta argitaratu ahal izango ditu, web-orrian, aldizkarietan, karteletan, etab. antolatzen dituen jarduerak iragartzeko, salbu adin txikiokoen lege ordezkariek espresuki oposizioa agertzen badute.
- Lehiaketan parte hartzeak arauen onarpen osoa dakar.**

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK
DERIO | LEZAMA | LOU | LARRABETZU | SONDIKA | ZAMUDIO

www.txorierrri.eus

	KILOMETROAK	Zarautz NAGUSIENTZAKO IZEN-EMATE ORRIA ADIN TXIKIKOENTZAKO IZEN-EMATE ORRIA
DATA: Urriak 6. IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 23tik urriaren 3ko 14:00etara. AUTOBUSAREN ORDUA: 09:00 etan		
	NAFARROA OINEZ	Tutera NAGUSIENTZAKO IZEN-EMATE ORRIA ADIN TXIKIKOENTZAKO IZEN-EMATE ORRIA
DATA: Urriak 20 IZENA EMATEKO EPEA: Urriaren 7tik urriaren 16ko 14:00 etara. AUTOBUSAREN ORDUA: 09:00 etan		

TELEFONO INTERESGARRIAK · TELÉFONOS DE INTERÉS

Udal Bulegoak · *Oficinas municipales* 94 455 60 07
Epaitegia · *Juzgado* 94 455 65 37
Liburutegia · *Biblioteca* 94 455 61 26
Kiroldegia · *Polideportivo* 94 455 51 64
Eskola · *Escuela* 94 455 51 19
Frontoia · *Frontón* 94 455 61 17
Ur matxurak · *Averías de agua* 94 487 31 87
Mediku kontsultategia · *Consultorio médico* 94 455 65 01
Txanda eskatzeko · *Cita previa* 94 454 30 04/878
Gaztegune 94 455 43 92
Haurreskola 94 455 43 35
Ludoteka 94 455 43 65

TELÉFONOS ATENCIÓN VÍCTIMAS VIOLENCIA DE GÉNERO

Si necesitas hablar con profesionales de manera inmediata, confidencial y anónima: **900 840 111**
Si estás en riesgo: **SOS Deiak 112**
Si necesitas atención presencial, puedes concertar cita con el **Servicio de Asistencia a la Víctima (SAV)**
900 400 028 (gratuito)
94 401 64 87
SERVICIOS SOCIALES LEZAMA (María): 94 455 60 07

Informazio gehiago · *Más información:* www.lezama.org

2019ko udal ikastaroen gogorapena

Aisialdiko udal kurtoetako (2019ko Urria-Abendua) izenematea berritzeko epea irailaren 16tik 27ra izango da, biak barne, udal liburutegian. 2019 urte osorako inskripzioak egin duten pertsonak ez dute berriz egin behar.

Las clases del trimestre Oct-Dic.2019 comenzarán el 1 de octubre y terminarán el 20 de diciembre, cada curso en su lugar y horario habitual. Hay que recordar que los cursos deportivos de Pilates, Multigym y Zumba ya se están desarrollando en el nuevo gimnasio de la estación del tren desde mayo de este año.

Para este trimestre, y como novedad, se ofertan 2 nuevos cursos deportivos en el gimnasio municipal de la estación del tren (*):

SPINNING: Astelehen eta asteazkenetan 18:30etatik 19:30ak arte.
HIPOPRESIVOS: Ostiraletan 18:00tik 19:00ak arte.

(*) Udal kiroldegi berriari dagokionez esan beharra dago muskulazio eta *cardio* gela berria urrian zehar irekitzea pentsatuta dagoela. Udal webgunea, Facebook eta Twitterren bidez informatzen jarraituko dugu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak lagunduta.

Recordatorio cursos municipales 2019

El plazo para renovar las inscripciones en los cursos municipales de ocio y tiempo libre (para el trimestre Octubre-Diciembre 2019), será del 16 al 27 de septiembre, ambos inclusive, en la biblioteca municipal. Las personas que ya hicieron su inscripción para todo el año 2019 no tienen que volver a hacerla.

Las clases del trimestre Oct-Dic.2019 comenzarán el 1 de octubre y terminarán el 20 de diciembre, cada curso en su lugar y horario habitual. Hay que recordar que los cursos deportivos de Pilates, Multigym y Zumba ya se están desarrollando en el nuevo gimnasio de la estación del tren desde mayo de este año.

Para este trimestre, y como novedad, se ofertan 2 nuevos cursos deportivos en el gimnasio municipal de la estación del tren ():*

SPINNING: Lunes y miércoles de 18:30 a 19:30 h
HIPOPRESIVOS: Viernes de 18:00 a 19:00 h

(*) *Con relación al nuevo gimnasio municipal, hay que decir que está pensado abrir la nueva sala de musculación y cardio durante el mes de octubre. Seguiremos informando de su futuro funcionamiento mediante la web municipal y las Redes Sociales Facebook y Twitter, sobre las novedades y fecha de apertura.*

Subvencionados por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia




Mikel Zarate-ri buruzko dokumentala

“MIKELlegaz 40...40 MIKEL barik”

Badago ikusgai udal webgunean Josi Sierra Orrantia zuzendutako Mikel Zarateri buruzko dokumentala. Honek Lezamako Kultura aretoan aurkeztu zen pasa den apirilaren 10ean, bere heriotzaren 40. urteurrekin bat eginez. Hona hemen berrikusteko esteka:

<http://www.lezama.eus/eu-ES/Orrialdeak/Mikelegaz4040Mikelbarik.aspx>

Informazio gehiagorako: www.labur.eus/Mikelegaz40



Osakidetzako gripearen kontrako urteko txertaketa

Aurreko urteetan bezala, Osakidetak urriaren 14tik aurrera ekingo dio gripearen kontrako urteko txertaketari. Arrisku berezia duten kolektiboetara zuzentzen zaie: 65 urtekoak eta hortik gorakoak eta, gazteagoak izanik gaixotasun kroniko garrantzitsua dutenak, esaterako diabetesa, asma edo giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa.

Gripearen prebenitzeko txerto seguroaren eragina ederki frogatuta dagoenez gero, gure ahalegina justifikatuta geratzen da. Horregatik, errepikatu eta indartuko dira estaldura handitzeko zenbait neurri. Horietako bat da EAEko udalei laguntza eskatzea kanpainarekin lotutako informazioa zabal dezaten.

Campaña de vacunación antigripal de Osakidetza

Al igual que en años anteriores, Osakidetza iniciará a partir del 14 de octubre la campaña de vacunación antigripal anual. Está dirigida a aquellos colectivos que presentan un riesgo especial: personas con 65 o más años y menores de esa edad con alguna enfermedad crónica (pulmonar, cardiovascular, renal, diabetes,...), embarazadas y personas que pueden transmitir la gripe a dichos colectivos.







Este esfuerzo se justifica por el hecho de que se dispone de una vacuna segura, cuya eficacia ha sido ampliamente demostrada para la prevención de la enfermedad gripal.

Por esto, se van a repetir y reforzar una serie de medidas destinadas a incrementar la cobertura vacunal, entre las que figura el solicitar la colaboración de los diferentes ayuntamientos de la CAPV en la difusión de la información referente a esta campaña

en/ femme

UNA PELÍCULA DE ALBA BARBÉ I SERRA

UN DOCUMENTAL QUE PROPONE UNA NUEVA VISIÓN DE LAS FRONTERAS DEL GÉNERO



Urriak 11 de octubre
19:00
Kultura Aretoa, Lezama

El documental EnFemme muestra un firme compromiso con la erradicación de las discriminaciones por razón de orientación sexual, identidad de género y expresión de género en una aproximación al cross-dressing (travestismo) y a la vivencia de las familias que lo rodean.

Hautzaindegi zerbitzua behar baduzu idatzi ondoko helbidera irailaren 25a baino lehen:
//Si necesitas servicio de guardería escribe al siguiente correo antes del 25 de septiembre:
berdintasuna@txorierri.eu

MOREAK

DANOK
BERDINTASUNA



Lezama ko Udala

UN CENÓN DE ALBA BARBÉ I SERRA CON EL ASESORAMIENTO DE LAIA MANTRESA FOTOGRAFÍA: MAR C. LLOP OPERADORAS DE CÁMARA: MAR C. LLOP, ZORAJDA ROSSELLÓ ESPUNY Y ANNA GIRALT GRIJS
MONTAJE: NÚRIA ESQUERRA Y ANDREA CORACHÁN SONIDO: POL GALLOFRE MÚSICA: CLARA PEYA, DJ HUETE, NU Y DEGIHEUGI EDICIÓN DE AUDIO: CRISTINA PÉREZ DISEÑO GRÁFICO: MILVIETNAMS
PRODUCCIÓN POR ALBA BARBÉ I SERRA CON LA COLABORACIÓN DEL CLUB ENFEMME

Udal Berdintasun Arloko Jarduerak

Indarkeria matxistaren aurrean, erantzun!

Indarkeria matxista ohikoegia da gure egunerokoan, gehiegi normalizatu eta barneratu arte. Hainbat mota daude, batzuk besteak baino ikusgarriagoak. Identifikatzea ez da beti erreza izaten eta erreakzioak askotarikoak izaten dira. Hori dela eta, Lezamako Berdintasun Kontseiluak **Lezamako erantzun protokoloa osatzen ari da Emakumeen* eta LGTBI+ pertsonen kontrako indarkeria matxista kasuetarako; hala nola, sexu erasoak, tratu txarrak eta jazarpena.**

Erantzun koordinatuak eta sendoak eman behar ditugu edozein kasuren aurrean, eta horretarako, besteak beste, babesa eskatzeko erreferentziazko espazioak sortu nahi ditugu. Jai herrikoien kasuan, Basobaltz jai batzordearekin lanean ari gara txosnak zaintza rol hura bete ditzaten. Indarkeria matxistaren aurrean erantzun behar dugu eta erasotzailea seinalatu eta, esaterako, eskatu ahal izango dugu musika etetea segurtasun neurri moduan eta momentuko salaketarako.

Konplizitatearekin apurtzea ordea, konpromisoa eta lana eskatzen du maila pertsonalean zein elkarteetan. Indarkeria matxistaren gaitzespenerako lehen pausoa da prebentzioa eta egunero lan egitea gizarte berdinzaleagoa eta justuagoa lortzeko. Zuk ere baduzu zer egin.



**LEZAMA
BELDUR BARIK
lehiaketa**

Zabal ezazu Beldur Barik jarrera!

Lezamako Udalak indarkeria matxistaren aurkako mezuak zabalduko dituzten sorkuntza lan lehiaketa abiatuko du. Adin guztietako pertsoneri zuzendua.

**Oinarriak eta informazio osoa
udal-webgunean
irailaren 9tik aurrera**

MOREAK DANOK Lezama

Actividades Municipales de Igualdad

En contra de la violencia machista, responde!

Las agresiones machistas están demasiado presentes en nuestro día a día, demasiado normalizadas e interiorizadas. Por eso, desde el Consejo de Igualdad de Lezama se está elaborando el **Protocolo de actuación de Lezama ante casos de violencia machista contra mujeres y personas LGTBI+, tales como, agresión sexual, maltrato y acoso.**

Debemos dar respuestas coordinadas y contundentes. En fiestas, por ejemplo, queremos que las txosnas cumplan un rol cuidador ofreciendo información y apoyo ante cualquier agresión.

Todo ello sin olvidar que el primer paso del rechazo a la violencia machista es la prevención y el trabajo diario para construir una sociedad más igualitaria y más justa.



Lezama^{ko} Udala

Jornadas Europeas de Patrimonio 2019

Un año más, Lezama participa en las Jornadas Europeas de Patrimonio coordinadas y coorganizadas por la Diputación Foral de Bizkaia con ayuntamientos y otras entidades para el próximo mes de octubre. La temática del ciclo de este año será: "ONDAREA PLAZARA!", y en el caso de Lezama:

"Tras el aliento literario de Mikel Zarate"

ITINERARIO GUIADO

Mikel Zarate (1933-1979) fue un hombre imbuido de la conciencia euskaltzale y su obra es parte de ese sentimiento. Desarrolló su carrera en el ámbito del euskera, con trabajos que van desde textos retóricos con explicaciones teóricas hasta los cuentos (como Ipuin antzeko alegi mingotsak, con los que ganó el premio Azkue) y los estudios de gramática pasando por sus 2 novelas (Haugintza minetan e Hizunigu). Un recorrido literario por sus rincones más queridos de Lezama, de la mano de la vida y obra de este literato, será la manera de homenajearle en el 40 aniversario de su fallecimiento.


Idioma: Euskera / Castellano.

Punto de encuentro: Plaza Hilario Astorki

Día y hora: 6 de octubre a las 11:00 h.

Organización: Ayuntamiento de Lezama con la colaboración de Zorritzetan Euskera Elkarte

Información y reservas: 944 556 126 - liburutegia@lezama.org (Plazas limitadas).



Lorri - Lorrizto ezizena Lezaman

Euskaldunok beti izan gara ezizenak edo goitzenak jartzeko zale. Hori dela eta, zazpi herrialdeetan ohikoa izan da herri bateko zein besteak ezizen batez ezaizte.

Herri bakoitzeko biztanleak izendatzeko jarri ohi diren ezizenak dira. Batzuetan deskriptiboak edo herri honetako nortasun ikur bati erreferentzia egiten diotenak dira; gehienetan ironikoak edo peioratiboak, sarritan auzo-herrietakoek jarriak eta zenbaitetan norberak bere buruari harrotasunez eskainiak; batzuk oso zabalduak, beste batzuk gutxi erabilitakoak. Kasu guztietan herri-kulturaren adierazleak dira, Euskal Herrian eta munduko leku guztietan. Ezizen sorta hauek garai batean oso indartsu eta bizia izan zen herrialdeko nekazaritza-eremuari dagokion hiztegi aberatsaren lekuko dira.

Ezizen hauek herrietako kulturagintzarako eta marketinerako guztiz tresna baliagarriak dira. Jatorrian zirikatze edo burla nahiz iseka egiteko asmatuak. Askotan, ezizena umore onez hartu eta burla kutsua ahaztuta, bertakoek ezizena deituratzat hartu eta harro erabiltzen dute, baita herriko bertako ekimenak izendatzeko ere, marka gisa. Bizkaia mailan ere oso zabalduak egon den ohitura da, eta asko dira ezizen berezia hartzen duten herritarrak, euren herria zein den adierazteko.

Lezaman adibidez, **ZORRIAK** bezela ezagutzen gaituzte Txorierrin (Perretxiko uzteak Zamudion, Akarrak Larrabetzun, Tximintxak Derion...). Eta zer da **Zorria euskeraz?**

-zorri iz. Intsektu bizkarroia, ugaztunen odola xurgatuz bizi dena (*Pediculus humanus*).

Zehatz mehatz ez dakiguna da noiztik izendatzen gaituztela horrela, eta betez ere, zergaitik. Ziuraski gure ondoko Larrabetzuko "akerrak" ezizenarekin badu zerikusia, eta alderantziz ere bai...Nor izan zen lehenengoz alboko herrikoen ezizena jarri ziotena?? Hor uzten dugu....

Gure herrian 2 elkarte ditugu **ZORRI** aurrizkia (prefijoa) erabiltzen dutenak:

-**Zorriketan Lezamako Euskara Elkarte**: Lezamako euskara elkarte. 1998an sortu zen Lezaman, euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuaz. Ekimen kulturalak eta herrikiak antolatzen ditu Zorriketan elkarteak, batez ere.

-**Zorribike Lezamako Txirindulari Kirol Elkarte**: 2007an sortua BTT-Mountain Bike praktika bultzatzeko asmoz.

Honetaz guztiaz gehiago irakurri eta ikertu nahi bazuze, hona hemen pare bat aipamen:

-BIZKAIKO HERRIETAKO EZIZENAK

(https://eu.wikipedia.org/wiki/Zerrenda:Bizkaiko_herrietako_ezizenak)

-Ezizen horiek gehienbat herri bakoitzaren inguruetan dira ezagunak, eta Felix Ibargutxi kazetariak bi artikulutan (bata euskeraz,[1] bestea gaztelaniaz[2]) horien berri zabaldu du. <https://www.diariovasco.com/20070826/al-dia-sociedad/fauna-nuestra-20070826.html>

Apelativo Lorri - Lorrizto en Lezama

La sociedad vasca siempre ha sentido apego por la utilización de apelativos o sobrenombres. Así es que en los siete territorios ha sido y es habitual conocer a cada pueblo por un apelativo diferente. Son apelativos usados para nombrar a los habitantes de cada pueblo.

A veces son descriptivos o palabras que hacen referencia a un símbolo que marca la identidad de ese pueblo; mayormente son irónicos o peyorativos, a menudo puestos por ellos mismos con orgullo. Algunos de estos apelativos son muy conocidos, otros en cambio, menos utilizados.

En todos los casos son representaciones de la cultura popular, en el País Vasco y en todo el mundo. Este grupo de sobrenombres son el testigo de un lenguaje muy rico venido de un pueblo campesino con una cultura muy fuerte y viva.

Estos son también una herramienta muy válida para promover la culturización y el marketing de los pueblos. En sus inicios fueron creados como burla o vacile.

En su mayoría estos apelativos fueron tomados con buen humor y acabaron utilizándose con orgullo por los mismos apelados, también incluso para nombrar a las diferentes iniciativas ciudadanas.

Esta es una costumbre muy expandida en Bizkaia, y es que son muchos los pueblos y habitantes que son conocidos por apelativos.

A los habitantes de Lezama por ejemplo nos conocen por **ZORRIAK** en todo el Txorierrin (en Zamudio 'Perretxiko Uzteak', en Larrabetzu 'Akarrak', en Derio 'Tximintxak'...). Pero, ¿qué significa **ZORRIA**?

-Zorri = Piojo. Parásito que vive de absorber la sangre de los mamíferos. (*Pediculus humanus*).

Lo que no sabemos con exactitud es desde cuando nos llaman así, y tampoco por qué. Seguramente tenga relación con el sobrenombre de los de Larrabetzu 'akerrak' (Bruto, cabrón) y al revés también. ¿Quién fue el primer pueblo en poner un apelativo a otro? Ahí lo dejamos...

En nuestro pueblo hay 2 asociaciones que utilizan el prefijo 'zorri':

-**Zorriketan Lezamako Euskara Elkarte**: Asociación de euskera de Lezama. Se creó en Lezama en el 1997 con el objetivo de impulsar el euskera y la cultura vasca. Esta organiza distintas actividades e iniciativas de carácter cultural y popular.

-**Zorribike Lezamako Txirindulari Kirol Elkarte**: Asociación de ciclistas de Lezama. Creada en 2007 con el objetivo de impulsar la práctica de BTT-Mountain Bike.

En caso de querer leer o investigar más sobre eso puedes consultar cualquiera de los enlaces que aquí te dejamos:

LISTA DE APELATIVOS DE LOS PUEBLOS DE BIZKAIA. (Sólo disponible en euskera): (https://eu.wikipedia.org/wiki/Zerrenda:Bizkaiko_herrietako_ezizenak)

-Estos apelativos son generalmente conocidos en los pueblos de alrededor y el periodista Felix Ibargutxi ha escrito dos artículos sobre ello: (<https://www.diariovasco.com/20070826/al-dia-sociedad/fauna-nuestra-20070826.html>)

Lezamako Txoko Historikoa

Andra Mariko elizaren oholza

Ba al zenekien Andra Mari elizako oholza 1739 eta 1741 urteen artean eraiki zela? Bernardo del Anillo maisuaren lan barrokoa da, Siete Villas batzarraren kantabriar tailerrarena. Honako hau garai horretan lan asko egin zuen Bizkaia eta Gipuzkoan, eta beste eskultore, arkitekto eta *policromador*ekin batera Bizkaiko XVIII.mendeko *retabilistica* barrokoaren garapenari lagundu zion. Birginaren irudia Meruelon (Kantabria) landu zuen Manuel del Mazok eta ondoren Lezamara eraman zuten. Hala ere, erabilitako egurra hemengo zen eta maisuaren tailerreraino bidaiatu zuen Lezama - Bilboko Portua - Santoña Portua - Meruelo eta bueltako ibilbidea eginez. Oholtzan ezarri zuten 1743ko urtarrilaren 13an. Oholtzaren alboko kaleetako eskulturak, San Pedro eta San Pablo irudikatzen dituztenak, Manuel de Acebo izeneko maisu kantabriarrek egin zituen 1771. urtean.

Hona hemen obra hauen kostua:
-Mazoneria (oholtzaren estruktura) : 8000 erreale
Bernardo del Anillo arkitektoari.
-Imagineria (eskulturak) : 3800 erreale Mazori
Birginiagatik eta 1.100 erreale Acebori San Pedro eta San Pablogatik.

Iturriak:
-Udal informazioa.
-ZORROZUA SANTISTEBAN, Julen: "El retablo barroco en Bizkaia". Ed. Bizkaiko Foru Aldundia, 1999.



El Rincón Histórico de Lezama

Retablo de la iglesia de Andra Mari

¿Sabías que el retablo mayor de la iglesia de Andra Mari se construyó entre los años 1739 y 1741? Obra barroca del maestro Bernardo del Anillo, perteneciente al taller cántabro de la Junta de las Siete Villas, que trabajó mucho en esa época en Bizkaia y Gipuzkoa, y que junto a otros escultores, arquitectos y policromadores, contribuyó al desarrollo de la retabística barroca vizcaína del S.XVIII. La imagen de la Virgen se talló en Meruelo (Cantabria) por Manuel del Mazo y luego fue trasladada a Lezama, aunque la madera elegida era de aquí y viajó hasta el taller del maestro en un recorrido Lezama - Puerto de Bilbao - Puerto de Santoña - Meruelo, y viceversa a la vuelta. Fue colocada en el retablo el 13 de enero de 1743. Las esculturas de las calles laterales del retablo, representando a San Pedro y San Pablo, fueron realizadas por el maestro escultor también cántabro Manuel de Acebo, y son del año 1771. El costo de las obras se desglosa así:
-Mazonería (estructura del retablo): 8.000 reales al arquitecto Bernardo del Anillo
-Imaginería (esculturas): 3.800 reales a Mazo por la Virgen y 1.100 reales a Acebo por San Pedro y San Pablo.

Fuentes:
-información municipal
-ZORROZUA SANTISTEBAN, Julen: "El retablo barroco en Bizkaia". Ed.: Diputación Foral de Bizkaia, 1999.

Liburutegi, Ludoteka, Gaztegune eta Gazteleku zerbitzuen hasiera.

Inicio de los servicios de Biblioteca, Ludoteca, Gaztegune y Gazteleku.

LIBURUTEGIA

Udal liburutegiaren zerbitzua irailaren 10ean hasiko da ohiko ordutegian, 17:00tik 20:30era arte astelehenera eta 16:00tik 19:30era arte asteartetik ostiraletera.

LUDOTEKA

Ludoteka zerbitzua irailaren 16an hasiko da. Astelehenera ostegunetara 17:00tik 19:00tara. Ostiraletan 17:00tik 20:00tara.

GAZTEGUNE

Ateak berzabalduko ditu irailaren 20an ohiko ordutegiarekin. Ostiral eta larunbatetan 17:30etatik 21:30etara eta 17:00tik 20:00tara igandeetan.

GAZTELEKU

Ateak berzabalduko ditu irailaren 20an ohiko ordutegiarekin. Ostiral eta larunbatetan 18:00tik 22:00tara eta 17:30etatik 20:00tara igandeetan.

BIBLIOTECA

El servicio de la biblioteca municipal comenzará el martes 10 de septiembre en su horario habitual de 17:00 a 20:30 h los lunes, y de 16:00 a 19:30 h de martes a viernes.

LUDOTECA

El servicio de Ludoteca comenzará el 16 de Septiembre. Lunes, martes, miércoles y jueves de 17:00 a 19:00 h. Viernes de 17:00 a 20:00 h.

GAZTEGUNE

Reabrirá sus puertas el 20 de septiembre en su horario habitual de 17:30 a 21:30 h los viernes y sábados, y de 17:00 a 20:00 h los domingos.

GAZTELEKU

Reabrirá sus puertas el 20 de septiembre en su horario habitual de 18:00 a 22:00 h los viernes y sábados, y de 17:30 a 20:30 h los domingos.



ELKARTEAK

GAILUR MENDI TALDEA

IRAILAK 21-22 | VALLE DE TENA - PIRINIOAK
URRIAK 20 | PAGASARRI
URRIAK 26 | GORBEIAKO PAGADIAK



EKIDAZU ABESBATZA

IRAILAK 7, ZAPATUA
20:00etan Andra Mari Eleizan jaietako kontzertua hurrengo abesbatzekin: UPV Abesbatza eta Ekidazu Abesbatza



Lezamako Jaiak 2019

Irailak 1 (Domeka)

08:00 XIV. Lezamako Mugetatik mendi martxa.
09:30 XIV. Lezamako Mugetatik lasterketa eta txikien martxa.
11:00 Meza.
14:30 Adintsuen bazkaria.

Irailak 2 (Astelehena)

SAN ANTOLIN

12:00 Meza.
12:30 Luntxa txikitilariekin grotua.

Irailak 6 (Barikua)

18:00 Pilota partiduak:
Afizionatuen Andra Mari txapelketa (Finalerdia).
19:00 Koadrilen jaiatsiera, Mikel Zarate enparantzatik, GAIA: Peiikulak/Telesailak.
19:30 Txupinazoa eta pregoia Kurutze dantza taldearen eskutik.

19:45 Poteoa herriko tabernetatik Sakatu elektrobarangak girotua.
21:45 Txosnak Zabaltzea.
22:00 Umeen mozorro lehiaketako sari banaketa.
21:45-00:00 Mozorrotuta datozenentzat 2x1 garagardo eta kalimotxo katxietan eta alkohol bako edarietan.
22:00 Kontzer tuak: DOMEZAIN + HAKIMA FLISSI + KARTZAROT + MAMAGIGIS + GARILAK 26.
01:00 Nagusien mozorro lehiaketako sari banaketa.
Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 7 (Zapata)

ODOLOSTE EGUNA

11:00 | Mendiko Bizikleta Ibilbidea "Txiki-Infernua 2019". 7 eta 14 urte bitartekoentzat.
11:00-14:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
13:00 Poteoa herriko tabernetatik Kittu taldeak girotua.
14:30 Herri bazkaria Estankoaren eskutik. Tiketak herriko komertzioetan salgai 10€-tan.
16:00 Kantaldia Kittu taldearekin.
17:00-19:00 Umeentzako puzgarriak, tailerrak eta diskofesta.
18:30 | Pala Txapelketako finala.
19:00 Baldin bada kale antzerkia herriko plazan.
20:00 Ekidazu eta UPV/EHUko abesbatzen kontzerua eleizan.
22:00 Txosnak Zabaltzea.
23:00 Kontzertuak: BAD SOUND + HUNTZA + OXABI.
Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 8 (Domeka)

ANDRA MARI EGUNA

11:00 Meza.
11:00 Pilota partiduak.
- Lezamako pilota eskolako umeak
- Afizionatuen Andra Mari txapelketa (Finala)
11:45 Dantzaldia Kurutze dantza taldearen eskutik.
17:00 Xaibor diskofesta herriko plazan.
19:00 Dantza plaza txosnagunean Eingo taldearekin.

Irailak 9 (Astelehena)

12:00 Meza.

Irailak 9 (Astelehena)

BOLALEKUKO JAIK

14:00 Paella Txapelketan izena emotea.
15:00 Paellen aurkezpena eta sari banaketa.
16:00 Mus txapelketa. (20€ bikotea).
17:00 Umeentzako puzgarri eta tailerrak.
19:00 Txokolatada Goiko tabernaren eskutik.
19:30 Erromeria Gauargi taldearekin.



**Leza
mako
jaiak**

www.lezamakojaiak.com

Kurtzeko jaiak

Irailak 13 (Barikua)

19:30 Batukada BATUKANDRA taldearekin
21:30 Erromeria BROKEN IZOTZ taldearekin
Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 14 (Zapata)

(SANTA KURTZ EGUNA)

10:00 Mahai eta aulkien banaketa
Tiketak erosteko azken eguna Irailak 12.
11:00 Umeentzako tailerrak goizean zehar eta jolasak arratsaldean.

11:30 Sukalki eta Tortilla txapelketetarako izen ematea.
12:00 Meza ermitan.
14:00 / 14:15 Sukalki eta tortilla txapelketen aurkezpena eta sari banaketa.
14:00 Umeentzako jolasetan parte hartu duten guztientzat (4-12 urte arteko umeak + begiraleak) bazkaria zerbitzatuko da. (Arroza + saltxitxak + postrea + edaria). Tiketak salgai 7€-tan auzo eta herriko denda eta tabernetan. Tiketak erosteko azken eguna Irailaren 12a izango da.
17:30 Tiro a la rana txapelketa
18:30 BOCABEATS COMEDIA- ren ikuskizuna

20:00 Bingoa eta afarimerienda solomo eta hirugiharra bokatekin
21:30 Diskofesta: PEETER PAN DJ
22:00 Sorginaren erreketeta eta su artifizialak.

Dikofestak jarritzen du.

Irailak 15 (Domeka)

12:00 Meza ermitan. Jarraian luntxa auzkoentzat.

Jaien amaiera.

Antolatzailea:

Basobaltz Lezamako Jai Batzordea

Babestea:

Lezamako Udala

Informazio gehiago:

www.lezama.eus | www.lezamakojaiak.com



Lezamako Jaiak
BASOBALTZ Jai Batzordea



Lezama ko Udala